

# Manolo Urbieta, musikaren pedagogo

Manolo Urbieta, gizon plurala da, izpiritu sortzaile eta emankorra inor bada, kontradiktorioa nahi bada, artista ehunetik ehun. Musikaria da barne-barnetik eta betidanik. Eta bokazioz, eta urte luzetako dedikazioz, pedagogo. Horretantxe dihardu azken 10 urteotan.

Manolo Urbieta gizon urduria da. Bere ezin egonean, zalantzaren hari laxoan dabil etengabe, egindakoa kritikatzu beti eta forma berrien bila. Bide urratzaile da. ikusi besterik ez dago eraman duen bidea: Oleskariak, Zarautzko Musika-Eskola, Martuteneko Saialekua, Hernaniko Musika-Hezkuntza, edota Xirula Mirula, Txalo Pin Txalo, Atotxa giroan, Ikusi-Makusi, Xixupika. Asmo, saio, ekintza hauen hariak mogitzen beti gizon bera dago, gizon konformagaitz eta urduri hori: Manolo Urbieta. Manoloren bizitza — eta bizial — memento da, eskuarte lana. Gaur Xixupika.

Joan Mari Torrealdoi: Bai, halaxe da. Gaur Manolo Xixupika da. Bera eta lana bat dira. Hilargiaz galdetzen badiozu ere, Xixupikaz, haurraren musika-mundua hitzegingo dizu. Baina nik, Manolo, gogoratu nahi nizuke, honetara iritsi aurretik bide luzea eginik dizula, ez alferrik dituzu 47 urte.

Manolo Urbieta Jakin aldizkariaren fondatzaileetakoa da, duela 25 urte aurten hain zuzen, zerorrek

dan: euskal kulturara dedikatzea erabaki nuen, eta horren barruan, musikaren heziketa haurrekin lanean.

Horretarako eman nuen lehen urratsa biziki ausarta izan zela aitortzen dut: Lankide Aurrezikiko nere lanpostua utzi eta, emazte, haur eta guzti, Erromara jo nuen, han «Filosofia y Letras» delako karrera egitera, ikastolan lanegiteko titulua behar zela eta.

Handik bueltan zuzenean haurren munduan murgildu nintzen osoki. Lehendabizi, bost urtez, Zarautzko ikastolan. Gero frailetan musika, plastika eta euskara ematen nuelarik, Musika-Eskola eraiki genuen. 300 haur nituen hemen hasieratik eta ia 500era iritsi ziren.

Iaz hain zuzen, Zarautzko Ergo-biara aldatu nintzen. Memento honetan, ba, — eta honekin zure bigarren galderari erantzuten hasten naiz — Larramendi Irakasle-Eskolan musika irakasle naiz, Hernani (talde baten laguntzaz, Udaletxeak babesurik) musika irakasten dugu eskolaz eskola, Martuteneko ikastolan ere musika irakasten dut; eta azkenik, — baina ez azken lekuan! — Ergo-biako gure etxean Musika Heziketarako Saialeku bat eraiki dugu. Hemen esperimentatzen dugu Xixupika.

J.M.T.: Iritsi zara berriro Xixupikara. Baina itxaron, Xixupikaren munduan sartu aintzin, begira dezagun orain-



kaskuntzan erabili ohi den selektibitate, elitismo eta konpetitibitatearen aurkako izan nahi du espreski nere lanak.

Nere bidea etengabeko progresioan eramatean saiatu naiz. Eta horregatik, gaurko alturatik begiruta, ikusten dut zer kritikaturik egin ditudan urratsetan ere. Eboluzio horretan Xixupika da, noski, punturik garaiena, nere ikerketan horrek markatzen bait du haurraren munduarekiko komunikazio-hurbiltzarik esena.

J.M.: Berriz Xixupika. Goazen ba Xixupikarekin. Xixupika haurraren mundua da, eta haurraren mundua Xixupika da. Hautsiezineko bateratasun bat dago hor. Haurra da protagonista eta egile, hori bistan dago, aski da horretaz jabetzeko saio batean han egotea. Eta irakaslearen lekua? Zein da zure eginkizuna hor, eta zer lortu nahi duzu Xixupikarekin, bata bestea suposatzen bait du.

M.U.: Bai, haurra da egile, gu eragile, animatzaile, zirikatzaile, hantse-maila, ez besterik. Haurrak berak inposatzen du ritmoa. Baina nik ez dut sinesten haurraren berezko sortzailetasun etengabeko horretan. Horregatik uste dut animatzaileak baduela tekurik hor. Estimulak sortu eta animatu, behar-beharrezkoa da hori. Horretan saiatzen gara. Baina ez inposatzen bidez. Haurraren zerbitzari gara.

Kontserbatorio eta gainerako musika-eskola normalizatuak lortu nahi duten helburua gurean oso beste-lakoa da: punterengo kantariak edo tresna-joleak atera. Guk ez, guk pertsona errespetatu nahi dugu, bere joeratan, bere ritmoan, bere nortasunean, bere izaeran, eta haur konkretuaren egoera konkretetik abiatuz murgildu nahi dugu haurra musikaren mundu fantastiko horretan. Musikak berak ere zerbitzari behar du izan. Haurraren zerbitzari. Haurri — haur bakoitzari — bere bidea egiten utzi egin behar zaio.

Esperientziaren poderioz egia simple honetaz jabetu naiz: haurra bere nortasunean eta ingurunean osoki hartzeko bide bat bakarra dago funtsean, jolasa. Jolasean agertzen da haurra bere osotasunean, gorputz eta izpiritu. Horixe da haurraren mundu erreala. Hortxe txertatu nahi dugu musika. Musika irakatsi ez baino bizierazi egiten dugu guk.

Xixupika haurraren musika da, berez eta helburuz. Eskubidez dago kio haurri musika. Ez deziogula hori ere lapurtu. Poema batetan diodanez «haurrak 100 hizkuntza ditu. 99 lapurtu dizkiote». Horixe egiten dute kontserbatorio eta musika-eskola tradizionalak: haurri musika ostu, pertsona superdotatu eta fenomeno guti batzuentzat erreserbatuz. Gure musika edozeinentzat eta denentzat da. Gure musika-heziketak ez du txapelunik sortu nahi. Haurrari bere segurtasuna, autonomia eta sortzailetasuna ziurtatu nahi dizkio.

Irakaslearen lanak beste puntu batetan ere innta handia du. Begira, hiru urteko haurrekin hasten naiz ni lanean, eta nere esperientzia hau da: jakin hiru urterekin kutsaturik daude haurrak, errekupeziario musikalaren premia aurkitzen dira.

Txiki-txikitandik oso murrizturik gu musika-dohaina. Gaurko haurrek euskal musikaren eskemarik ez dakarte baño ere. Izan ere, zer abesti entzuten dute inguruan, bere etxean? Telebistak ezarritako eskemak eta erreferentzia musikalak soilki aurkitzen ditugu gure haurraren. Lanak ditugu euskal eskemak, gure onomatopeiak adibidez, bizierazteko.

J.M.T.: Euskara aipatzen duzu. Zure ikerketan hain zuzen hizkuntzaren presentzia oso nabarmena da, erabatekoa esango nuke. Badirudi zure musikagintzan euskarak markatzen duela pausua, ritmoa.

M.U.: Hortixe doa hain zuzen nere bidea: haurrak hizkuntza eta hizkuntzaren bidez aurki dezala musikaren mundu miragarri hori. Ama-hizkuntzatik abiatzen nahiz. Musikaren euslea da hizkuntza. Horrek ematen digu ritmoa. Hizkuntza eta musika ezkontide dira gure lanean, bat egiten dute. Hain handia da batasun hau, ze fonema bakoitzak bere musikalitate propioa bait berez. Horren bilaketa da gure eginkizuna. Euskarari, gainera, suertez gabilza horretan, ikaragarri aberatsa bait da. Eman dezagun, adibidez, S, Z, X, TZ, TS, Tz. Fonemen aberastasuna, ordea, galdurik dugu eguneroko bizitzan, ahoapean ahozkatzen bait dugu. Argi eta garbi ahozkatetik abesirainoko bidea, gure lanean etnik gabeko lerroa da, fonemafonia.

J.M.T.: Amaitzeko, azken puntu bat, laburpen gisa agian. Xixupika kasetean «Psikofonia» jarri duzu. Zer adierazi nahi duzu horrekin, eta, agian berdin dena, zer da zuretzat Xixupika?

M.U.: Gure lan-mota honi psikofonia deitzen diogu, eta honekin adierazi nahi duguna orain arte mintzatu garen hori da gehiago da. Musika egitearen, musika bizitzaren modu bat da Psikofonia, Xixupika.

Xixupikarekin guk ez dugu teknika eskaintzen, estilo bat proposatzen dugu. Xixupika ez da musika metodo klasiko bat. Gure teknika bakarra, arestian esan bezala, haurra animatzea, estimulatzea da, eta horretarako biziaren lortzen eta situazioak sortzen saiatzen gara. Giro horretan haurra murgiltzen dugunean, musika egitea ez da abesteko teknika, tresnak maneiatzea, orduan musika ez da mezuaren eustale mekanikoa, Coca-Colaren anuntzio gisa.

Gure musikagintzan haurrak osoki parte-hartzen du, ez haren ahotsak, edo eskuak. Haurrak bere osotasunean, hots, bere gorputzean, bere animan, bere kulturari, bere nortasunean, bere izaeran.

Manolok bere esperimentazioaren barne-muinak hitzez azaldu nahi dizkidan bitartean, Martuteneko Saialekuan grabaturiko azken zinta entzuten nago. Ederra benetan! Horregatik aitorten batekin amaitu nahi dut: hizkuntza eta musika eta haurra elkartzeko hori Manolok hitzez baino zintak berak askoz hobe ematen du; zer esanik ez, nik entrebista honetan bil-labur dezakedanak ez duela kolorerik ere. Zinta hori entzuten dudalarik, ez nago ziur «entzun» bakarrik egiten dudana. Entzutean «ikus» egiten dudalakoan nago, hitzak, doinuak eta haurrak gorputz hartuko balute bezala. Dimentsio berri bat hartzen du musikak zinta horretan.



harro harro sarri aipatzen didazunez. Oleskariak abestalde famatuzko fondatzaile, zuzendari eta animatzaile izan ziren. Zarautzko Musika-Eskolaren kreatora eta «alma mater» ere zeu izan zara. Eta abar luze bat.

Manolo, beti euskal kulturaren eta musikaren hesparruan ikusten zaitut nik. Beti hor, baina ez beti berdin, iruditzen bait zait zure lan-motak izan duela aldaketarik eta, agian, etenik. Galdera bikoitz baten bidez jakin nahi genuke zein izan den zure eboluzioa, eta zertan zaren gaur bertan.

Manolo Urbieta: 1970 inguruan egin nuena haustura al da, eboluzio-katearen uztai bat gehiago al da? Ez nuke definitzen jakingo. Zortzi edo bederati urte Oleskariak taldearekin ibili, Zarautzko haur kantariarekin eta hemen plazaratu, euskal kulturaren era guztietako larritasunak somatu, eta barru-barruan betidanik necaman joera berpiztu egin zitza-

dik atzera. Nere inpresio bat agertu dizut, zure kontu egiaztatzea ala gezurtatzea. Begira, behin baino gehiagotan ikusi zaitut haurrekin lanean, bai orain eta bai aspaldi batean, baina ez bietan berdin. Haurraren-gandik hurbilago ikusten zaitut orain.

M.U.: Horixe baietz! Izan dut aldakuntzarik eta hobekuntzarik nere bizitzan. Arrazoak duzu jokoera desberdintasun horretan.

Jadanik 1967an haurrekin musika-lanetan bananbanen. Garai hartan beste presupositu batzuren lanegiten nuen. Gure kantua, euskararen iraupenerako zen, erresistentzi mailan genbiltzen buru-betiarri. Aldarean jarri genuen musika, eta haren gurtzan eta zerbitzuan geunden denok. Prezioa? Haurraren manipulazioa!

Gerotzikako nere jokabideak helbururik izan badu, horixe izan du bat: manipulazioari buruz-buru egin. Manipulazioaren eta musikaren ira-

